

auzo • auzo • auzo • auzo • auzo • auzo

herrera

Hasi da ikasturtea Moneda baserrian

bidebietako Familia eta Gizarte-Heziketarako zentruak dagoeneko martxan jarri ditu aurtengo ikasturterako ikastaroak. Urtero bezala ikastaro hauek Moneda baserrian izango dira goiz, arratsalde eta gaueko txandetan.

Sei taldetan banatuta, 30 ikastaro eskainiko dira prezio murriztean. Osasunorokorraren inguruan, sexualitateari buruzko tailerra, yoga, masaia eta gimnasia eskainiko dira. Giza eta kultur alorrean gaurkotasunezko gaiak, kultura aktiboa eta alfabetatzea emango dira. Tailerren artean eskulangintza, hariz egindako lanak, pintura... eta astialdirako trebatze alorrean tapizgintza, altzari berritzea eta zurezko brikolaia.

Beste mota batzuetako ihaurduerak ere badira, hala nola, hitzaldi-solasaldiak, mahainguruak, kultur ikustaldiak, ihaurduera ludikoak, erakusketak eta txangoak.

Tailer eta iharduera hauen prezioak 5.000 eta 5.500 pezeta artekoak dira.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ



Ikastaro gehienak arratsean 19.00etatik 21.00etara izango dira. Informazio gehiago nahi izanez gero 39 54 99 telefonora dei dezakezue.

altza

Kirol Udal Patronatuak ekintza eta ikastaro hauek eskainiko ditu Altzako polikiroldegian aurtengo asteleheneetik ostiralera goiz zein arratsaldez mantentze gimnasia gizon-emakume helduentzat, igeriketa eskaintza zabala haur, gazte zein helduentzat, norberari egokitutako entrenamendua eta uretako jolas ekintzak besteak beste.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 35 24 57 telefonora.

Gas instalazio berria dela eta, obretan ikusi ahal izan ditugu azken asteetan Altza eta Larratxoko kale gehienak. Nahiz eta lanek dirauten bitartean, oztopo ugari sortu, etorkizunerako hobekuntza paregabea

izango da gehienontzat. Batipat, kontutan hartzen badugu eraikuntza ugari bost solairu baino gehiago dituztela eta butano bonbona igotzea oso gogorra dela. Hemendik aurrera, gas instalazio erosoagoa izango da beraz, Donostigas egiten ari den lanari esker. Aurrerantzean gainera, gas naturala sartu ahal izango da.



DonostiGas Energi Naturala da.
Altza - Herrera (45 02 00)